



Euskararen Etxea

Hizkuntza aniztasuna munduan eta gudan

Aurre ezagutza aktibatuz! Irakaslearentzako gidoia. Ariketa honek ikasleen artean hausnarketa bideratzea du helburu. 35-40' saioa aurreikusten da.

- Irakasleak ikasleei ariketaren helburua azalduko die. Bakarka egingo dute lan hasieran; horretarako, banatu orri zuriak eta arkatz/boligrafo/margo bana. Irakasleak honako bost galderak egingo ditu, eta ikasleek beraien erantzunak emandako orrian idatzi edo margotuko dituzte.

| |
|---|
| Zenbat hizkuntza ezagutzen dituzu? |
| Zenbat hizkuntza daude munduan? |
| Zenbat hizkuntza erabiltzen dituzu etxean? Eta eskolan? |
| Zertarako balio dute hizkuntzek? |
| Nola ikas daiteke hizkuntza bat? |

- Galdera guztiei erantzun eta gero, jar daitezela ikasleak launaka. Har ditzatela 5 minutu beraien artean erantzun dutenari buruz hitz egiteko. Lagungarriak izan daitezkeen galderak: *Zer erantzun duzue galderetan? Zergatik? Erantzunak errepikatzen dira? Ez/bai? Zergatik?*
- Azkenik, talde handian, erantzundakoei buruz hitz egin. Aipatu diren erantzunekin ondorio batzuetara iristen ahalegindu. *Zer dakigu hizkuntzei buruz? Eta euskarari buruz? Hizkuntza asko edo gutxi ezagutzen ditugu?*